

Sartu Araba irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. Desberdintasunezko egoeran dauden pertsonak gizarteratzea du **EGINKIZUN**, hobekuntza pertsonalerako nahiz hezkuntza eta lan arloko prestakuntzarako ekintzen bidez eta parte-hartze komunitarioaren bitartez.

Sartu Araba elkartearen **IKUSPEGIA** erakunde profesional independentea eta anitza izatera dago bideratua, eta solidarioa gure eginkizunaren betekizunean. Era berean, erreferentzia izan nahi du jendea gizarteratzeko arloan, hala desberdintasunezko egoeran dauden pertsonentzat, nola xede hori lortzen laguntzen duten gainerako eragileentzat.

Hona hemen zer **BAUOK** gidatzen gaituzten. Sartu Arabako pertsonak haiekin identifikatzen dira gehienik:

- Zintzotasuna.
- Eraginkortasuna eta efikazia.
- Aukera-berdintasuna.
- Elkartasuna eta lankidetzatza.
- Pertsonen errespetua.
- Enpatia.
- Konpromiso arduratsua pertsonekin eta gizartearekin.
- Gardentasuna.
- Hobekuntza etengabea eta berrikuntza.

Sartu Araban gure egiten dugu gidaritzatza eraldatzaile kontzeptua bultzatzeko **KONPROMISOA**, sozialki arduratsua, gure erakundea helburu hauetarantz bideratze aldera:

- Gure eginkizuna eta ikuspegia garatu eta gauzatzea.
- Lurralde barneratzaileak sustatzea.
- Gure lankide eta gure lanen helmuga diren pertsonen eta interes-taldearen gogobetetzea.
- Gure prozesuen hobekuntza etengabea, erakundearen ezarri eta garatu dugun kudeaketarako sistema integratua garatuz eta mantenduz.
- Ingurumena errespetatu eta zaintzea, energia zentzuz erabiltzen saiatuta eta sortzen diren hondakinak balorizatuta.
- Gure lana gauzatzeko behar diren baliabide materialak eraginkortasunez eta efikaziaz kudeatzea.
- Sartu Araban lan egiten duten eta gure jardueretan parte hartzen duten pertsonen segurtasuna eta osasuna.
- Gure erakundeari agertzen zaizkion arrisku eta aukerak aintzat hartzea eta aldi-aldi aztertzea, gure zerbitzuen eta produktuen kalitatean eta segurtasunean eragin dezaketelako.
- Bizitzaren jasagarritasuna haren dimentsio hirukoitzean: ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna alde guztietatik begira eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko borrokan.
- Gure jarduerari aplikatu beharreko lege eta araudi guztiak betetzea.

Kudeaketarako politika integratua egunean ulertu, ezarri eta mantentzen da erakunde guztian, eta Sartu Arabako Kudeaketa Batzordearen erabateko konpromisoa eta sostengua dauka. Izan ere, Batzorde horrek sistema honen bidez ezarri, garatu eta aplikatzen baitu politika hori: Lanean Kalitatea, Ingurumena eta Segurtasuna Nahiz Osasuna Kudeatzeko Sistema Integratua.

Gasteizen (Araba), 2019ko urtarrilaren 30ean.



Sartu Arabako Kudeaketa Taldea

